

GEORGES LACOMBE

(1879 - 1947)



Bearne'ko Orthez'en sortua zan eta amaren aldetik donapaleutarra, Saint Jayme napar etxe ospetsukoa. Gaztetandik asko ibillia zan Prantzian iri batetik bestera, bañan azkenean Paris'en kokaturik an bizi ta il zan. Sorbona inguruan igaro zituen urte onenak Filosofiaren ikaskizunetan beti leiatuaz. Gai ortan jakituna zan eta asko zekin, baita Euskera arazoetan ere. Batik bat Alduide ta Zubero'ko euskelgaiari buruz. Orregatik euskaltzain izendatu zuten Broussain jaunaren-alkia betetzearren. Urkixo jaunaren adiskide aundia izan zan. Ez digu liburu aundirik utzi bañan bai lan asko R. I. E. V. eta beste aldizkarietan sakanatuak.

J. Bilbao'ren bibliografi txartelean 150 etik gora artikulo argitaratuak azaltzen dizkigu. P. Lafitte'k euskaltzain sartzeko egin itzaldian (1949-XI-26) «Herria»-n argitaratua xehetasun geiago ematen dizkigu Georges Lacombe'ren bizitzaz.

1914-1918 gudatean zauritua izanik eskuiko besoa moztu bear izan zioten. Alaz ta guziaz alai, kementsu ta oso lagunartekoa izan zan beti. Atsegin zan arekin jardutea.

Oroitzapen labur au zor diogu. Ainbeste maite izan baitzitun euskera ta gure gauza guziak.